

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Geoatariak Foru Komunitateko aireko irudi eguneratuak eskaintzen ditu dagoeneko

*Aurtengo udan Sustapen Departamentuak egindako oinarritzko ortoargazkiarekin bat datoz*

Lunes, 24 de noviembre de 2014

Sustapen Departamentuak 2014ko Nafarroako oinarritzko ortoargazkia argitaratu du, hau da, aurtengo udan Foru Komunitatean lortutako azalerako aireko irudi eguneratuak, eta tratatuak izan direnak efektu geometrikoak zuzentzeko.

Oinarritzko ortoargazki hori, beste urte batzuetan argitaratutako bizkorraren bertsio zehatz eta landuagoa da, eta [SITNA](#)ren (Nafarroako Lurralde Informazio Sistema) hedapen-kanaletan eskuragarri dago, [Nafarroako Geoatari](#)an eta [IDENA](#)n, hain zuzen.

Argitaratutako irudiek Foru Komunitateko lurraldearen informazio eguneratua ematen dute, eta hura erabiliko ahalko dute, Nafarroako Gobernuak nahiz obra zibil, hirigintza, katastro edo baso-kudeaketa eta baliabide agronomikoei lotutako gaietan interesa duten pertsonak. Halaber, ortoargazkia Nekazaritzako Bermearen Espainiako Funtsak (FEGA) erabiliko du Nekazaritzako Politika Bateratuak (NPB) Nafarroan ematen dituen laguntzetarako.

Ortoargazkiaren ekoizpena eta kontrola Sustapen Departamentuak egin du Estatuko Geografia Institutuaren laguntzarekin. Irudiak lortzeko, hegazkin bat eta azken belaunaldiko kamera bat erabili dira, Nafarroako Geodesia Activa Sareko 12 estazio egonkorak eta informazio-kopuru handia epe laburretan prozesatzen uzten duen azpiegitura informatiko bat. Lan horiek Tracasa enpresa publikoak egin ditu.



Ortoargazkia lortzeko erabilitako hegazkina.

## Xehetasun teknikoak

Irudiak honako hauek erabiliz lortu ahal izan dira:  
Vulcanair Observer P68 TC hegazkina, Leica ADS80 SH82 ekorketako kamera digitala,

PAV80 plataforma giroestabilizatua, eta irudiak zuzentzeko software-a, zehazki hartualdi, erliebe eta proiektzio konikoko inklinazioaren efektu geometrikoak .

Irudien orientazioa aireko triangelaketa batean oinarrituz egin da, eta lurrean neurtutako laguntza-puntuak nahiz hegazkineko nabigazio-sistemaren informazioa erabiliz, Nafarroako Geodesia Activa Sareko (NGAS) datuekin doituta

Aireko triangelaketaren ondoren, ortoproiektzio-prozesua egin da, eta fase horretan LiDAR teknologiatik lortutako lurreko eredu digital bat erabili da. Datuak Leicaren ALS60 sentsoreak 2011-2012 urteetan hartu ditu (1 pto/m<sup>2</sup>-ko dentsitatea) eta edizio estereoskopikoarekin eguneratu dira 2014ko hegaldi fotogrametrikoan oinarrituz. Sortutako ereduak 2 metroko sare-pasabide bat du eta 0.5 metro baino gutxiagoko zehaztasuna.

Lortutako azken produktua Foru Komunitateko lurralde guztiaren ortoargazki jarraitu bat da RGBIr raster formatuan. 50 cm-ko bereizmen espaziala du eta pixel bat baino gutxiagoko zehaztasun geometrikoa.



Bideko Autobiak (A-12) Errioxarekin bat egiten duen loturaren ikuspegia, Vianan.